



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-02-28**

VILURTEA 1.641 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



lurreamendiko azpikontraturiko langileek elkarretaratzea egin zuten Plaza Zaharrean. HITZA

lurreamendiko langileak lanuzteekin hasiko dira

TOLOSA Atzo elkarretaratzea egin zuten Udal langileen eta azpikontraturikoen baldintzak parekidetzea eskatzeko 3

Balorazio baikorra egin dute Inauterien inguruan

TOLOSA Kolektoreak ez du eragin handiegirik izan; garraio publikoan gorakada izan da 2

Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldekoak Euskal Selektzioarekin aritu dira 4

Espainiako Kluben Arteko Kopan laugarren postua Danena-Olaederra taldekoentzat 5

Finalaurrekoan ariko da gaur 'Luze' leitzarra,



GAUR • Otsailak 28

LARUNBATA

SU TA GAR

KONTZERTU HANDIA

SALMENTA PUNTUAK: • Zumbeltz musika denda (Tolosa)
• Peritza taberna (Leitza)
• Leku ona taberna (Etxarri-Aranatz)
• Ilargi taberna (Lekunberri)
• tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

Kontzertua bukatu eta gero, sarrera doan eta areto nagusian ● Dj Julen ●

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI

Kolektorea ez da aitzakia izan jendeak Inauteriez gozatzeko

Aisia » Jai Batzordeak jai hauen balantze baikorra egin du; garraio publikoa inoiz baino jende gehiagok erabili du eta emandako aldaketek, erantzun ona jaso dute.

ESTI EZEIZA

Inauterietako biharamuna bizi du egun hauetan Tolosak. Sei egunetako jaiaren ostean, normaltasunera itzultzen ari da pixkanaka hiri, baina oraindik ere nabarmena dira jaiaren ondorioak. Jai batzordekoak nahiz festa hauetan lan egin dutenak berriz, balorazioak egiten ari dira jada.

Herenegun elkartu ziren Jai Batzordeko 40 lagun inguru eta aurtengo Inauterien inguruko balorazioa egin zuten. Iritzi ugari plaza-ratu ziren, eta datorren urtera begira, aldaketak proposatzen ere hasi ziren batzuk. Bestalde, garbiketa zerbitzuetaoek, garraioetaoek nahiz Udaltzaingoak hainbat datu bildu ditu, aurtengo Inauterietan zer utzi duten aztertzeko.

Aurten, bi izan dira aldaketa nabarmenenak. Bata, ibilbidearena. Kolektorearen obrak direla eta, karroza eta konpartsak beste ezohiko kaleetan barrena ibili baitira. Antolatzaileen ustetan, azkenean, obrek ez dute horrenbesteko eraginik izan, eta hasiera batean arazo nahiko handia izango zela uste zuten, azkenean, ez da horrela izan. Bestalde, Zaldunita bezperako helduen danborradaren ordutegia aldatu zen. Aurten, gauez behar-rean, iluntzean izan delarik. Honi dagokionean ere, gustura agertu dira Jai Batzordekoak, aurreko urteetan baino jende gehiago gerturatu baita hau ikustera.

Inoiz baino zabor gehiago

Garbiketa zerbitzuetaoak izan dira jai hauetan lan gehien egin dutenetako batzuk. Izan ere, denbora



Jende ugari hurbildu da egun hauetan Tolosako Inauterietara, horren adibide izan da Zezen-plaza. IMANOL GARCIA

gutxian, zabor ugari bildu behar izan baitute. 41 langile aritu dira horretan egunero, 06:00etatik 12:00etara bitartean. Hauek luzatutako datuen arabera, kaleetan, 184,5 m3 zabor jaso dira, eta 57.300 kilo, kontainerretatik. Hala, %23 igo da iaiztik kaleetan pilatutako zikinkeria. Hazkunde hau nabarmendu nahi izan dute aurten Udalekoek, jendeari eskatu, hurrengoan, karroza eta konpartsetako gauzak kalean utzi beharrean, Ferialekura eramateko. Bestalde, ibilbidea aldatu denez, aurreko urteetan baino kale gehiagotan pilatu da zikinkeria. Hau aurrekusten zutenek, zerbitzua zabaltzea erabaki zuten. Bestalde, eskerrak eman nahi izan dizkiete tabernari, zaborra kalera ateratzeko jarritako ordutegiak betetzeagatik.

Inauteriak ongi pasatzeko eta festarako egunak baldin badira ere, beti egoten da hau ulertzen ez duenik eta arazoak sortzen dituenik. Aurten ere hainbat saltokitako kristalak apurtu dituzte. Baina oro har, gertaera larrik ez da izan.

Garraio publikoaren erabilera gorakada

Renfe Aldiriak ezarritako datuen arabera, 49.570 bidaiari gehiagari garraiatu ditu aurtengo Inauterietan, Tolosatik eta Tolosara, Irun-Brinkola linean. Hala, iaizko datuekin alderatuz gero, honek

adierazten du, aurten 8.500 bidaiari gehiago garraiatu dituela. Izan ere, 2008ko Inauterietan 41.000 bidaiari gehiagari eraman zituen.

Egun hauetako bidaiari gehiagari gehienek igandean, otsailak 22,

eta igande, astelehen gauean, otsailak 23, egin zituzten joan-etorriak. Zaldunita eta Astelenitarako Renfek gaueko trenen aparteko zerbitzuak jarri zituen 22:00etatik 07:00etara bitartean, hiru jaiegutietan. Ildo horretatik, Irun-Brin-

kola lineako bidaiariak 67 tren berezi izan dituzte guztira Inauterietan.

Renfek egindako lehen kalkuluen arabera, aldiriko gaueko trenak Tolosatik joan-etorriak egiteko erabili dituzten bidaiariak 8.200 izan dira, eta horietatik 5.100ek astelehenetik astearterako gauean erabili zituzten trenak. Mugikortasun handieneko gauak igandea, otsailak 22, eta astelehena, otsailak 23, izan ziren. Gaueko zerbitzu berezietan, Renfe Aldiriak igandean eguneko zerbitzua ere indartu zuen Tolosara eta Tolosatik, eta egun horretan Renferen linea horretako bidaiarien kopuruak gora egin zuen nabarmen, egun osoan 24.900 bidaiari izan zituen eta iaiz, 19.800.

Autobus zerbitzua ere indartu zuten egun horietan, hala, eskualdeko hainbat herritara egin zituzten bidaiak, gauean. Aipagarria da, Berastegira zihon autobus, egunen batean, 100 lagun inguruk erabili zutela. Asteasurakoa berriz, 130ek. Hala, gustura daude antolatzaileak garraio publikoak izan duen erantzunarekin. Urteetik urtera gero eta gehiago baitira Tolosara tren edo autobusez, autoa alde batera utzita, gerturaten direnak.



Konpartsa onena, 'Su-hiltzaile'-ena

INAUTERIAK • Inauteriak baino lehen, jendeak lan ugari egiten du jai hauek prestatzen. Batez ere, karroza eta konpartsetako kideek. Esfortzu hau eskertzearen, urtero karroza eta konpartsa onena saritua izaten da, eta atzo gauean eman ziren ezagutzera irabazleen

izenak. Karrozei dagokionean, *Vasco con label* izenekoak izan zen. Konpartsetan berriz, irudian ageri den *Su-hiltzaileak* izan zen garaile. Bigarren 2009 urtean *Aranburu Kalean*-ekoak geratu ziren, eta hirugarren, *Parrez eta Pozik*-ekoak. NEREA URIBIZU

Hilberria

BARTOLO ETXABE OLIDEN

Atzo hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko Bartolo, pozgarria izan da zurekin bizitzea, eta poz horrek bizi gaitzala.

Zure sendiak

Oharra: Elizkizun bat egingo da bere alde, GAUR, hilak 28, 19:00etan, Oikiako elizan



OIKIA
2009ko otsailaren 28a



MARIA LUISA GORROTXATEGI ARANBURU

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai, hauts hartatikan uste gabean noizbait ginaden gu ernai.

LAB
Lanaren Aldeko Erakundeak

LAB-CAF sail sindikala

BEASAIN
2009ko
otsailaren 28a

Gizartea » Udal langileen baldintzetera parekidetzea eskatzen dute, «lan berdina egin eta gutxiago irabazten dutelako».

INIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako hainbat Zaharren Egoitzetako langileak bezala, Iurreamendiko Zaharren Egoitzakoak ere kalera irten ziren atzo, ELA sindikatuak deituta, euren lan baldintzen inguruan protesta egitera. Bi arrazoi nagusi dituzte protesta hauek: batetik, Gipuzkoa mailan negoziatzen ari diren lan hitzarmenaren hobetzea, eta bestetik, Iurreamendiko Zu eta Biok-eko azpikontraturiko langileen baldintzak Udal langileekin berdintzea. Arrazoi horienatik, datorren asteartean lanuzteekin hasiko direla iragarri dute.

Hala, ELAkadierazi bezala, «Gipuzkoa mailan negoziatzen ari den hitzarmenaren lau hilabete pasa ondoren, patronalak ez du oraindik erantzun guk egin ditugun eskakizun nagusien inguruan: oinarritzko soldata, subrogazioa, lansaro osatuak, lanaldiaren murrizketa, igande eta jaiegumetarako plusa eta urteko egutegia».

Bestalde, egoitzaren azpikontraturiko langileen lan hitzarmena berritzeko izan dituzten negoziaketetan, azken eskaintzak ez duela parekidetzea aurreikusten, eta «egoitza udal zerbitzua denez,

Iurreamendi egoitzako langileak lanuzteekin hasiko dira asteartean



Iurreamendi egoitzako Zu eta Biok azpikontraturiko langileak, atzo Tolosako udaletxearen aurrean. I.T.

udal langileekin berdintzea» eskatzen dute. Ildo horretan, «5.827 euro gutxiago» jasotzen dituzte azpikontraturiko langileek salaritzen dute, «lan berdina egiteagatik». Halaber, zuzendaritzak ez duela onatzen negoziaketarik salatu dute, eta «Gipuzkoan negoziatzen ari diren konbeniora bidali nahi gaituzte». Baina, Zu eta Biok-eko langileek negoziatu nahi dutela diote, «enpresako lan hitzarmena dugalako, eta diskriminazioa

ematen delako Iurreamendi egoitzan».

Gauzak honela, atzoko protestaldian, Jokin Bildarratz Tolosako alkateari zuzendu ziren Iurreamendi egoitzako Zu eta Biok-eko langileak, euren eskakizunak konstante har ditzala eta bilera bat egin dezala eskatuz, horretaz guztiaz hitz egiteko.

Euren protesten zergatiaren berri emateaz gain, datorren asteartean lanuzteekin hasiko direla ere

iragarri zuten atzokoan Iurreamendiko langileek. Datorren astean bi egunetan, eta hurrengoan hiru egunetan egingo dituzte lanuzte hauek.

Villabona hasi dira

Bestalde, herenegun hasi ziren Villabonako Santiago Zaharren Egoitzan lanuzteekin. Atzo ere 10:00etatik 13:00etara egin zuten, eta datozen egunetan ere jarraituko dute protestaldiarekin.



Herenegun ezker abertzaleko kideek agerraldia egin zuten. I.T.

«Balio gehien duen bozka da D3M»

ERREDAKZIOA

Anoetako nahiz Tolosako ezker abertzaleak «herritar aurrerakoi eta ezkertiar orori», bihar D3Mren alde bozkatzeko deia luzatu diete.

Euren ustetan, «D3Mren aldeko bozka da egungo salbuespen egoera gainditu eta eskenatoki demokratiko bat ahalbidetuko duen benetako aldaketa ekarriko duen botu bakarra; ezker abertzaleak parte hartzea ez dute nahi, aldaketa politikoa ekarriko duelako, eta

botu baliogabea dela diote, baina, balio gehien duena da». Hala, D3Mren aldeko bozka «indar metaketarako lehen urratsa» izango litzakeela dio ezker abertzaleak, eta «honek negoziazio prozesua ahalbidetuko luke».

Halaber, etxeko buzoiean jasotako D3Mren aldeko bozka erantzeko bihar, eta bozkatzeko unean EHNA erabiltzeko deia luzatzen die ezker abertzaleak herritarrei.



Onintza Lasa, herenegun, Tolosako Kultur Etxean. I.T.

«Promesak ez baino ekintzak ditugu guk»

ERREDAKZIOA

Onintza Lasa eta Jexux Mari Larrazabal EAren zerrendagaia izan ziren herenegun iluntzean Tolosako Kultur Etxean, biharko hauteskundearen harira, herritarrei Eusko Alkartasunak eskainiko diena azaltzen.

Inauterietan jokoan eginez, kanpainan zehar askok mozorroa erabili dutela aipatu zuten; «guk, berriz, promesak ez baino ekintzak ditugu, hau da, urte hauetan zehar

parlamentuan eginiko lana. Guk eskarmentua daukagu».

Ildo horretatik, «aukera aber-tzalea EA dela» aipatu zuten; «autodeterminazioaren aldeko bidea jarraitzeko konpromisoa hartu genuen, eta hori dela uste dugu bide egokia». Horretaz gain, «EA sendo bat parlamentuan izatearen garrantzia» azpimarratu zuten, eta jokuan dagoela esan zuten herritarren erabakitzea eskubidearen alde egiten jarraituko den.

L Laburrak

Tolosa Kantari ekimena gaur, eguerdian hasita

TOLOSA • Hilabete azken larunbatean egiten duten moduan, gaur kantari aterako dira hainbat herritar kalera, Tolosa Kantari ekimenean parte hartuz. Tonto kaleetik irtengo dira, 12:00etan, eta Alde Zaharreko kaleetan zehar ibiliko dira. Euskaraz kantatzea maite duen ororentzat irekia da.

Piñata Igandea Iurreamendi egoitzan

TOLOSA • Inauteriak bukatu dira, baina ohiko moduan, asteartearen ondorengo igandean Piñata Igandea ospatzen da, beraz, txaranga doinuak izango dira berriro ere entzungai. Hain zuzen ere, Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa izango dira Iurreamendi Egoitzan euren doinuekin egoiliarak alaitzen, bihar.

'Animaliak' ikuskizuna, gaur, Leidor aretoan

TOLOSA • *Animaliak* antzezlanaz izango da gaur ikusgai, Leidor aretoan, 17:00etatik aurrera. Gazte-txoei zuzendurikoa da, eta antzerkia eta dantza batzen ditu.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655955
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbolak: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldeko bus: 943 650621
Leitzaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurreamendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

IKTko bost igerilari euskal selekzioarekin Espainiakoan



IKTko igerilariak fin aritu dira euskal selekzioarekin, Madrilen jokatu den Espainiako Txapelketan. HITZA

Igeriketa » Marta Alonso, Eneka Muñagorri, Itziar Oteiza, Ekaitz Privado eta Pablo Uzkudun Madrilen aritu dira.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Igeri Kirol Taldekoek pozik izateko arrazoiak dituzte, izan ere, taldeko bost igerilari euskal selekzioa ordezkatu dute Madrilen jokatu berri duten Espainiako Txapelketan. Hain zuzen ere, Marta Alonso, Eneka Muñagorri, Itziar Oteiza, Ekaitz Pri-

vado eta Pablo Uzkudun igerilariak lortu zuten selekzioaren postua izatea.

Postu horren jabe izateko, aurrez proba bakoitzeko Euskadiko onenak izan behar izan zuten. Hala, Espainiakoan erkidego bakoitzeko igerilari bakarra aritu da proba bakoitzean. «Argi geratzen da, beraz, IKTkoen maila altua», azaldu dute pozik elkartetik.

Nesken lana aztertuz

Igerilari hauen atzean lan handia dagoela argi dago. Marta Alonso-ren kasuan, lau probatan hartu zuten parte; banakako 50 metro txi-

meleta erara eta 50 metro bizkarrez; 30-78 eta 32-12ko denbora lortu zuen hauetan, hurrenez hurren.

4x50 metro erreleboetan ere aritu zen igerian, baita 4x50 askean ere, bietan ere euskal selekzioaren ezinbesteko partaidea dela utzi zuen agerian.

Eneka Muñagorriren lana ere «goraipatzekoa» izan da eta lortutako emaitzekin ere euskal selekzioaren duen «garrantzia» erakutsi zuen. Taldekakoan, 4x200 metro erreleboetan eta 4x100 metro askean hartu zuen parte «kalitatezko

emaitzak lortuz». 200 metro askean 2-12ko denbora egin zuen eta 100 metro askean, berriz, 01-10ekoa.

Itziar Oteiza ere ez zen atzean geratu eta lan fina burutu zuen, arduradunek jakitera eman dutenez. Azken honek bi probatan hartu zuen parte; batetik, bizkar erara 50 metroak egin zituen 31-80ko marka izugarria lortu zuelarik. 4x50 estilo eran ere aritu zen Oteiza.

Mutiletan, bi ordezkar

IKTko bi mutilek ere jantzi dute euskal selekzioaren bainujantzia Madrilen izandako txapelketan. Ekaitz Privado eta Pablo Uzkudun dira. Lehenengoa «euskal selekzioaren izarra» izan zen 50 metro bular-igeriketa proban. Halaber, taldeka, 4x50 metro estilo erako proban ere ezinbestekoa izan zen

Igerilari bakarrak ordezkatu du bere erkidegoa Espainiako Txapelketan

bere taldearentzat. Azken honetan 31-59ko denbora egin zuen.

Mutiletan bigarrena, Pablo Uzkudun, euskal selekzioaren igerilari onenetarikoak izan zen. Banakakoan, 200 metro bizkarrez egin zuen. Hain zuzen, proba honetan lortu zuen Espainiako markarik txikiena, 2-08ko denborarekin. Merezitako lorpena da Uzkudunentzat, «entrenamenduetan eginitako esfortzu handiaren fruitua», hain zuzen.

«Zorionak» IKTren izenean

IKTko arduradunek «zorionik beroena» luzatu nahi izan diete bost igerilari hauei, «eginiko lanarengatik eta arrakastarengatik».

Oargi mendi elkartearen eskutik, GPS ikastaroa eta zubian irteera

Tolosa » Aran bailarara joango dira martxoaren 19tik 22ra; ikastaroa lau egunetan zehar jorratuko dute.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkartek hilabete honetan bi hitzordu garrantzitsu antolatu ditu. Batetik, martxoaren 19tik 22ra bitarteko zubian Aran bailarara joango dira. Ostegunean 08:00etan abiatu dira autoz Espitau de Vielha aterpetxeraino (25 euro eguneko pentsio erdian); 3 gau egingo dituzte bertan. Ostira-lean, Tuc de Moulleres (3014 m) mendira igoko dira. Larunbatean, berriz, Besiberri Sur gailurreraino igoko dira (3030 m) eta igandean etxealdera abiatuko dira, gosaldu ondoren. 9 eta 10 orduko ibilbideak dira, hurrenez hurren.

Bestetik, GPS ikastaroa ere antolatu dute. Martxoaren 9an eta 11n eta 13an (19:30etik 21:00etara), eta 14an (08:30etik 15:00etara).

Izen-emateak

Irteeran parte hartzeko 688 69 842 telefono zenbakira dei daiteke martxoaren 16a baino lehen. Izena ematearekin batera 20 euro ordaindu beharko direla aurreikusit dute, elkartean bertan edo Euskadiko Kutzaren kontu korrontean (3035 0028 11 0281141038).

GPS ikastarorako, berriz, telefono zenbaki berbera erabil daiteke, edota info@oargi.org helbidea, martxoaren 6a baino lehen.



SARIDUNAK

① Ileanpandegian zerbitzu osoa



Juan Antonio Iraeta (Ikaztegieta)

② 2 lagunentzako afaria

Zabala Sagardotegian

Garagartza baserria
Tel.: 943 69 07 74 • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)



Aiztondo Zerbitzu Mankomunitatea (Zizurkil)

③ 2 lagunentzako afaria

Erreka Sagardotegian

Erreka auzoa • LEITZA • Tel.: 948 51 06 25
(Autobiako Leitza norabideko irteeran gaude)



Agustin Amiano (Altzo)

④ hitza[®] ren material sorta



Izaskun Dorronsoro (Berastegi)

Saria eskuratzeko HITZA jarriko da zuekin harremanetan.

Saridunaren harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan. Eskaintza berriak hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan argitaratuko dira.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Espainiako Kluben Arteko Kopan laugarren postua pultsularientzat

Zizurkil-Villabona »

Danena-Halterofilia taldekoek 16 urte azpikoen eta 18 urte azpikoen mailan lortu dituzte emaitzak.

ERREDAKZIOA

Madrilen ospatu berri den Kluben Arteko Espainiako Kopan, Danena-Olaederrako pultsulariek laugarren postua lortu zuten bai 16 urte azpikoen mailan eta baita 18 urte azpikoetan. 16 urte azpikoetan Adrian Sasiain, Iñaki Zubelzu, Asier Gallego, Jose F. Berbia, Aritz Eriz eta Julen Guerrerok parte hartu zuten. Beste taldean Igor Sasiain, Iker Hernandez, Julen Intxausti eta Jokin Urkizu izan ziren parte hartu zutenak.

Danena-Olaederra taldeetik azaldu dutenez, 16 urte azpikoen taldearen lana «kaxkarr» izan zen. «Hala ere aipatzekoa da Asier Gallego oso emaitza onak lortu zituela, bere marka guztiak hobetzen. Iñaki Zubelzu nahiko ondo aritu zen».

18 urte azpikoek ezin izan zuten borrokatu dominaren bat lortzeko. Lau pultsulari besterik ez zute-



Asier Gallego pultsularia. HITZA

lako parte hartu, azken mementonan bi pultsularik kale egin zutelako. «Iker Hernandezek oso txapelketa ona egin zuen, bere markak hobetzen», azaldu dute Danena-Olaederra taldeetik. Emaitza hori dela-eta, maiatzean Tailandian egingo den 17 urte azpiko Munduko Txapelketarako aurre-hautua izan da pultsulari gaztea. Taldeakideei dagokionez, «Igor Sasiain ondo aritu zen, baina besteak oso kaxkar», gaineratu dute halterofilia taldeetik.

Martinez Poloniara

Bestalde, pasa den asteburuan Europa Batasunerako Txapelketarako sailkapen proba egin zen Madrilen eta Danena-Olaederra Halterofilia taldeko pultsularia den Teddy Martinez sailkatu zen Polonian martxoan egingo den ekitaldi horretarako. EBko Txapelketa honetan lortzen diren emaitzen arabera, apirillean Errumanian egingo den Europako Absolutu Txapelketarako txartela lor dezake Martinezek.

Lakunzakoak lidertza mantetzera

Villabona » Transportes Lakunzakoek gaur Tolosan jokatu dute azken sailkatuaren kontra, lehen postuan jarraitzeko.

ERREDAKZIOA

Barakaldon (Bizkaia) lortutako garaipenari esker Villabonako Transportes Lakunza areto futbol-leko taldeak lidertza eskuratu du. Gaur izango du Ligako hurrengo partida Artamoro taldearen aurka. Azken postuan daude Artamoro-koak eta garaipena lortzeko aukera ona dute billabonatarrek. Partida 16:00etan jokatu da Tolosako Usabal kiroldegian, Villabonako Olaederra kiroldegia ezin baita erabili asteburu honetan hauteskundeak direla medio.

Kanikas Infracoman taldearen aurka 2-8ko emaitza lortu zuten Barakaldon. Hasiera ez zen ona izan, minutu gutxira galtzen hasi baitziren Lakunzakoak. Kontraeraso jokoan hasi ziren Barakaldokoak, baina billabonatarrek berdinketa lortu zuten Lander eta Sergioren arteko jokaldi baten ondoren azken honen golarekin. Hortik aurrera Lakunzakoek joko ona gailendu zen atsedendira 1-4 emaitzarekin iritsiz.

Bigarren zatian Villabonakoen nagusitasunak jarraitu zuen. Aipatu behar da ere atezainek azken partidetan egiten ari diren lana. Barakaldokoek bigarren gola lortu zuten eta atezain-jokalaria atera zuten. Horren ondoren Lakunzakoek beste lau golak iritsi ziren eta garaienarekin batera lidergoan jarzea bigarrenak baino puntu bat gehiagorekin.

Aipatu beharra dago ere Javi Garcia jubinari debutatu. Lakunzakoak jokalaria gutxiagorekin joan ziren eta horregatik Garcia lehen taldearekin joan zen. Partida ona egin zuen eta etorkizun ona izan dezake jokalaria gazteak. Golak Asier Aginagak (1), Lander Uzquidun (2), Juankar Santxez (1), Sergio Pascual (3) eta Hautsi Izagurrek (1) lortu zituzten.

Z Zurea da hitza info



Kontzertu didaktikoa

VILLABONA » Iragan ostiralean, Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako LH 3., 4. eta 5. mailakoek Kutxako Gaztetxoaren klubak antolatutako kontzertu didaktikoa parte hartzeko aukera izan zuten. JESUSENBIHOTZA@IKASTOLA

Afariak Larraulen eta Alkizan Emakumearen Eguna dela eta

Gizartea » Larraulen Goiz Argi jatexean elkartzeko dira eta Alkizan Ostatuan; izena emateko azken eguna etzi izango da.

izena Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean eman daiteke, 943 69 39 30 telefono zenbakian, eta horretarako azken eguna etzi da, martxoaren 2a.

Alkizan Ostatuan egingo da afaria, martxoaren 7an, larunbata. 21:00etan eseriko dira mahaira. Larraulen Goiz Argi jatetxean izango da afaria eta martxoaren 6an, ostirala, egingo dute. Herri honetakoak ere 21:00etan elkartzeko dira mahaiaren inguruan.

ERREDAKZIOA

Alkizan eta Larraulen afariak antolatu dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Bai afari batera edo bestera joateko




Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Ganbaran

Pablo Donezar:
ITURRALDE ETA BESTE BIDAIAK
Otsailaren 11tik apirilaren 4ra



Erakustaretoan

Aitor Ortiz:
GAP, ESPAZIO SORRA
Urtarrilaren 27tik martxoaren 28ra



ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
Bisitaldi gidatuak: kmk@komazk.com
Tel. 943 112 756 / 667 346 025



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua

TOLOSako LEIDORREN ANIMALIAK
Antzerki eta dantza fikuskizuma

Otsailak 28, larunbata 17:00etan



Iazko diruarekin Xochilt Acalteko emakumeek Albaitaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketak egin zituzten. N. LATABURU

Nikaraguako Xochilt Acalt zentroko emakumeei elkartasuna agertuz

Tolosa » Amarotz Auzo Elkarteak kideek Merkatu Txikia egingo dute aurten ere; martxoaren 9tik 15era egongo da zabalik.

ERREDAKZIOA

Urteak daramatza Amarotz Auzo Elkarteak Nikaraguako Xochilt Acalt emakumeen elkarteari laguntzen. Merkatu Txikia antolatu du urtero horretarako Tolosako Kultur Etxean. Merkatua aurten martxoaren 9tik 15era egongo da zabalik, baina lehenago, martxoaren 2tik 6ra, Amarotzeko Auzo Elkartearen jasoko dituzte jendearen ekarpenak (liburuak, arropa, diskoak, altzarriak...), 18:00etatik 20:00etara.

Biltzen duten diru guztia Nikaraguako Leon departamenduko Larreynaga-Malpaisillo udalerriko 8 komunitateen eta Telica udalerriko 3 komunitateen emakume-

ei bidaltzen diete. Orain arte emakume hauei guztiei laguntzeko egitasmo desberdinak bultzatu dituzte, batez ere osasuna eta hezkuntza landuz.

Aurtengoan biltzen duten dirua, zehazki, 16 emakumeri lagunduko die. Emakume hauek guztiek inpendentzia behar baitute euren bizitza garatzeko eta urteetako gizonen menpekotasunari aurre egiteko. Horrela 16 emakume hauek nekazaritza eta abeltzaintzako goi mailako prestakuntza teknikoak jaso ahal izango dute. Izan ere, oso garrantzitsua da errentzat ikasketa maila handitu ahal izatea lan munduan eta gizarte mailan bide eta ate berriak irekitzeko.

Tolosatik bideratzen zaien laguntza xumearekin emakume hauek larunbateetan eskolatera joateko garraioa ordaindu ahal izango dute (kamionetaren erre-gaia zehazki), baita janaria, ikasketak materiala eta azterketa oftalmo-

lotikoa ere. Bost emakumeek, era berean, betaurrekoak ere eskuratu ahal izango dituzte.

6.100 euro

Aipatu 16 ikasketa bekak finantzatu ahal izateko 6.100 euro behar dituztela esan dute Amarotz Auzo Elkarteak. Ikasketak hauek Nikaraguako Unibertsitate Autonomoak sustatzen du eta oinarritzko tresna batzuk eskaintzen dizkie emaku-



16 emakumeek aurten ere goi mailako ikasketak egin ahal izango dute. HITZA

me hauek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloetan, modu zientifiko eta praktikoa, eta baita ingurumena zaintzeko eta babesteko eran ere. Ikasketak unibertsitateak sustatutakoak dira eta emakume hauek eskolalarunbatetan jasoko dituzte (astelehenerik ostiralera lan egin behar izaten baitute), 8 orduz eta urte osoan zehar.

Aipatu ikasketak, gainera, aurreko urteetan bultzatu dituzten beste ikasketak batzuen jarraipena dira. Zehazki joan den urtean Albaitaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketak egitera bideratu zen Tolosan bildutako dirua. 20 emakumeek ikasketak hauek burutzeko aukera izan zuten lehenago lehen eta bigarren mailako alfabetatzen prozesuan parte hartu zutelako, hau ere Merkatu Txikiari esker.

Herriatik Nikaraguara bideratzen den dirua, gainera, ez da emakume hauengana bakarrik iristen; beraien formakuntza eta ongizateak familian, lehenik, eta gizartearen, bigarrenik, eragiten du eta.

Xochilt Acalt zentroko emakume hauek oso motibatuta egoten direla diote Amarotz Auzo Elkarteak kideek, bere ikasketak hobetu nahi dituzte, produktore bezala lidergoa erakutsi eta elkartasuna agertzeko ere.

Aipatu moduan modu desberdinak daude emakume hauei laguntzeko; batetik Merkatu Txikian saldu ahal izateko materiala eraman ahal da Amarotz Auzo Elkartera martxoaren 2tik 6ra eta noski, merkatua irekita dagoen bitartean -martxoaren 9tik 15era- zerbitu erosteko aukera ere egongo da. Era berean, Merkatu Txikian lan egiteko aukera ere badago martxoaren 2an Auzoetxean 19:30ean egongo den bilerara azalduta. KUTXAn ere ireki dute ekarpenak egiteko kontu bat: 2101008115 0124410788.

Belabietan jokatuko du gaur herriko areto-futboleko taldeak

Ibarra » 18:30etik aurrera jokatuko dute partida Lauburuako Gasteizeko Atenea taldearen aurka.

ERREDAKZIOA

Hilaren 7ko elurteak zirela-eta bertan behera geratutako partida gaur jokatuko du Ibarra areto-futboleko Lauburu taldeak. Hitzordua etxean izango da, Belabietan kiroldegian, 18:30etik aurrera.

Aurkaria Gasteizeko Atenea taldea izango da eta Lauburu partidako hiru puntuak eskuratzeko komeni zaio. Orain artean bezala ibartarrek baja ugari dituzte, baina taldeko gazteenek lan txukuna egiten ari dira, eta ondorioz Txubel entrenatzaileak irabazteko aukera ere badutela esan du.

Laburrak

Martxoan ere ONA txartela egiteko aukera

IBARRA » Ibarra Kzgunean martxoan ere egongo da Osasun Txartel Elektronikoa berria egiteko aukera. ONAren zerbitzu ugari eskuratu ahal izango da; liburutegietan, instalazio kulturaleetan, kiroldegietan... Zehazki asteazken eta ostiralean 16:00etatik 20:00etara egin ahal izango da txartel berria eta horretarako NANA eta OTLa bakarrik aurkeztu beharko dira. Zerbitzua guztiz doakoa da.

Euskadiko Kluben Txapelketako partidak

TOLOSA » Gaur 10:00etatik aurrera Tolosako Beotibar pilotalekuan Euskadiko Kluben arteko Txapelketako partidak ikusteko aukera izango da. Zehazki hauek izango dira bertan jokatuko diren pilotariak: Albis, Onsalo, Narbarte, Lopetegi, Renobales eta E. Galarraga.

@ Hauteskundeak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK biharko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen jarraipen zuzena egingo du euskaldeen. Azken ordukoak, bitxikeriak, datuak, argazkiak eta abar luze bat izango dituzte eskura gure web gunean. Noski, hauteskundearen emaitza zehatzak ere jasoko ditugu herriz herri. Era berean, ez ahaztu pasa berri diren Tolosako Inauterietako berriak, irudi ugari eta bideoak ere jaso ditugula web gunean:

www.tolosaldeko-hitza.info

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatzeko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskatzen da:


- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta haren manerak eratzasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldel Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatza ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Miguel Mari Eloseggi, 'Luze', Beteluko saioan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Elizondora iristeko bidea Altsasun hasten da 'Luze'-rentzat

Leitza » 2009ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren finalaurrekoa gaur jokatuko dute Altsasun 17:30ean.

A. IMAZ

Miguel Mari Eloseggi, *Luze*k, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoa jokatu du gaur, Altsasuko Iortia kultur etxean 17:30ean.

Leitzarrarekin batera ondorengo bost bertsolariak igoko dira oholza gainera: Jon Elizetxe, Aimar Karrika, Alazne Untxalo, Saioa Alkaiza eta Xabier Silveira.

Bigarren finalaurrekoa

Luze Txapelketaren bigarren finalaurrekoan ariko da gaur. Lehena iragan larunbatean jokatu zen Goizuetan. Bertan Iñigo Olaetxea na-

gusitu zen 322,5 punturekin. Iazko txapelalduna, Julen Zelaieta, bigarren postuan sailkatu zen 308,5 punturekin. Hirugarrena berriz Jon Barberena izan zen 308 punturekin.

Finalean egongo diren zortzi bertsolarien izenak martxoaren 7an jakingo dira, hirugarren eta azken finalaurrekoa jokatu ostean. Kanporaketa honetako bertsolariak Antsoaingo Antzokian elkartuko dira 17:30ean.

2009ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren txapelalduna Elizondotik irtengo da. Finala bertan dagoen Lur Aretolan jokatuko da hilaren 21ean, 17:00etan.

Finalerako sailkatzea

Elizondoko finalean zortzi bertsolari egongo dira. Finalaurre bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da eta gainerako bostak puntuazio onenaren arabera.

Asteburuarekin batera pilotari leitzarren txanda

Pilota » Oinatz Bengoetxeak Finalaurreko Ligaxkaren lehen partida jokatu du bihar Donostiako Atanon.

A. IMAZ

Eskuz Binakako Txapelketan leitzar bat bakarrik gelditzen da. Abel Barriola kanpoan gelditu ostean, Bengoetxea VI.a, Belokiren laguntzaz, txapelaren bila irtengo da txanpa erabakiorrean.

Finalaurreko Ligaxkan lau bikote aurkitzen dira. Olaizola II-Mendizabal II.ak gaur jokatu du Irujo-Goñi III.aren aurka. Bihar berriz, Bengoetxea VI-Beloki bikoteak Donostiako Atano pilotalekuan

jokatu du Berasaluze VIII-Beginoren aurka. Bikote guztiek elkarren artean jokatu ostean, bi onenek finala lehiatuko dute.

Aurrerako pilotariak

Profesionaletatik haratago badago bizia pilotan. Asteburuak horren adibide dira, izan ere, Aurrera eskolako pilotariak hamaika partida jokatzeko dituzte ostiralean hasita. Oraingo honetan, Emakume Pilotari Irekiko partida gaur jokatu du Aginagan Iera Agirre eta Saioa Aristorenak. Nafar Jokoei dagokienez, Amazabal pilotalekuan partidak egongo dira gaur, 10:00etan hasita. Azkenik, Jaunarena eta Arozena Zizurko Txapelketan arituko dira gaur, 15:45ean eta 17:00etan.

Gutunak

Gaur 17:00etan manifestazioa Iruñeko Gaztelu plazatik

Kurtsua abiatu zenetik emakumeonganako indarkeria sexistak ez du etenik izan. Egunez egun, egunkarietako orriak salaketa, bortxaketa, erailketekin betetzen joan dira, jendartearen erantzuna nahiko mugatua izan den bitartean.

2008ko urriaren 11an, Lizarrako Maria Puy Perez andrea desagerrarazi zuten. Ustezko erasotzailea atxilotu zuten baina handik hilabete batzuetara askatu. Nahiz eta itxuraz Maria Puy bilatzen Nafarroan dauden bitarteko guztiak martxan jarri diren, errealitateak beste zerbait erakutsi digu. Epaileak, kasuan eragin zuzena izan duen bikote ohia kalean utzi du eta kalean lasai-lasai dabil. Poliziak ez du bilatzen jarraitzen eta kasuaren jarraipena ez da egiten ari. Lizarrako Udalak, mugimendu feminista eta familiaren iniziatibaz aurkeztu den mozioa ez du onartu. Lotsagarria benetan, kasuarekin eta gaierak erakusten ari diren utzikeria. Handik hilabete batzuetara Ba-

rañainen labanaz emakume bat erasotua izan zen. Abenduaren hasieran neska baten kontrako bortxaketa bat egon zen Iruñan eta Tuteran beste bi bortxaketen berri izan dugu. Azken hilabeteetan ikusi ahal izan dugun bezala, astero hiru gizon atxilotzen dituzte emakumeonganako indarkeriagatik.

Baina hauek ez dira Nafarroan gertatzen diren kasu bakarrak. Publiko egiten ez diren hamaika kasu daude, salatzen ez diren beste hainbat. Beldurraengatik edota babes faltagatik indarkeria sufritza kondenatzen dituzten emakume asko dago. Garrantzitsutzat hartzen ez diren erasoak, erasotzat hartzen ez diren jarrera, irainak... Eta nazkatuak gaude!

Nazkatuak, egunez egun indarkeria kasu berri bat ezagutzen dugulako. Gure askatasunaren kontra doazen jarrera asko pairatu behar ditugulako. Jendartearen zati baten kuestionamendua beti jasotzen dugulako. Instituzioek biktima hutsak bagina bezala tratatzen jarraitzen gaituztelako. Martxan jartzen diren neurriak eskasak direlako eta beste hainbat hitz hutse-

tan gelditzen direlako. Egunez egun emakumeon kontrako indarkeria mantendu eta sostengatzen duten botere harremanak iraunera eta indartzen direlako. Berrindasunean bizi garelako entzun behar dugulako.

Horregatik datorren gaur, otsailaren 28an, kalera aterako gara. 17:00etan Iruñeko Gaztelu plazatik abiatuko den manifestazioan guztiok emakumeon kontrako indarkeriari aurre egiteko dugun erantzukizuna eta ardura plazaratu eta emakumeak autodefentsara deituko ditugu.

Emakumeok! Ezin gara inoren zain egon. Erasotzen bagaituzte defenda gaitzen! Gure etorkizunaren jabe egiteko antola eta borroka gaitzen!

Euskal gizon eta emakumeok! Gurea da egoera hau aldatzeko ardura, gurea indarkeriari aurrea hartzeko erantzukizuna!

Ez ahaztu. Gaur, otsailaren 28an, arratsaldeko 17:00etan Iruñeko Gaztelu plazatik irtenda manifestazioa.

Zatoz!
Leitzaldeko Bilgune Feminista.



Bi eskualdeetan, emakumeon aurkako indarkeriari aurre egiteko garaia dela aldarrikatu dute behin eta berriz. A. OTEZABAL

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfronbrak, etxebizitzak, bulegoak eta abar garbitzeko prest aurkitzen gara. Informazioa edo edozertarako deitu inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakietako batetara eta galdetu Irenerengatik: 638 944 604 edo 695 708 271.

hitza ^{info} bertako egunkaria

euskarazko egunkaria
etxean jasotzeko,

aukeratu zure eskualdea edo hiria eta egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan: 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

gainera zozketak, promozioak, deskontuak eta hainbat abantaila izango dituzu.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Zizurkil.** VII. Blues Jaialdia izango da *Zizurkilen ezer ez ta festa!!* egitarauaren baitan: 11:00etan Belceblues Atxulondo tabernan, 24:15ean Big Mama (Barcelona) Egarri tabernan eta 01:30ean BlueDays (Valladolid) Aurrera tabernan.

Kirola

■ **Alkiza.** Alkizako II. Frontenis Txapelketarako izen-ematea Elizegi tabernan. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, hama-sei urtetik gora, bost euro ordainduz.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Animaliak* haurrentzako antzerkia Leidor aretoan 17:00etan.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra *El cuento y la inclusion* izenburuan, Ana Torrellese emana, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Kultur Etxean, 60 eurotan. Informazioa *asvineana@gmail.com* edo 647 201401 telefono zenbakian.

Zinema

■ **Tolosa.** *Valkiria* filma emango dute Leidor aretoan asteburuan: gaur 19:30ean eta bihar 19:30ean eta 22:00etan. *La clase* filma, berri, gaur 22:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Sahararen independentzia aldarrikatuz

TOLOSALDEA Saharar Erruplika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 33. urteurrena izan zen atzo, eta nabari zen, izan ere eskualdeko hainbat udalaxetako balkoitik zintzilik ikus zitekeen Saharako bandera. Halaber, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin deituta, atzo elkarretaratzea

egin zuten Tolosako udaletxearen aurrean *Maroko Sahararik at autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat* leloean. Bestalde, urteurrena aintzat hartuta errefuxiatuen kanpalekuetako ospakizunetan parte hartzen ari dira elkarrekin hainbat kide. 17

A Agurrak


agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



HITZAri buruzko informazioa

Martxoaren Zan astelehenean

**EAEko hauteskundeak
HITZAn**

eskualdeko emaitzak herriz herri

